

2006ko MAIATZAREN HOGEITA BOSTEAN UDAL PLENOAK EGINDAKO OHIKO BATZARRALDIKO AKTA.

Zumaiako hirian, bi mila eta seiko maiatzaren hogeita bostean, arratsaldeko zortzietan, udaletxe honetako biltzar aretoan (Foronda Kultur Etxean), udal-plenoa eratu da, ohiko batzarraldia egiteko asmoz, aurrez ezarritako eguneko aztergaiari jarraituz. Garaiz eta behar bezala deituta, korporazioko kide hauek bertaratu dira:

LEHENDAKARITZA.-

Maria Eugenia ARRIZABALAGA OLAIZOLA andrea.

ZINEGOTZIAK.-

Asier ESNAL ALBIZU jauna.

Manuel ZUBIA ARTABE jauna.

Lide AMILIBIA BERGARETXE andrea.

Mikel OLAIZOLA ELOSUA jauna.

Andoni ETXANIZ OSA jauna.

Joseba Josu ASPIAZU AZKARRAGA jauna.

Iñaki AGIRREZABALAGA ALKORTA jauna.

Abel YEREGUI SASIAIN jauna.

Emiliano CABAÑAS GONZALEZ jauna.

Paloma HEREDERO NEGREDO andrea.

Cristina FORCADA UNANUE andrea.

IDAZKARIA.-

Miren ETXEZARRETA GARMENDIA.

1.- AURREKO BILERAKO AKTAREN ONARPENA, BIDEZKO BADA: 2006.03.30.

Alkate-lehendakariak bilera eratutzat eman ondoren, onarpenerako aurkeztutako aktei buruz, korporazioko kideren batek zuzenketarik egin nahi duen galdetu du.

Eako Iñaki Agirrezabalaga zinegotziak zera dio eskari-galderen atalean 13. orrian berak egiten dituen adierazpenetan Zumaia Lantzen buruz zabaldu den informazioan Administrazio Publikoen Legea betetzen duela, Uraren Legea, Kode Zibila jasotzen dela eta erantsi behar dela, beste edozein lege bete dezakeen bezala.

Joseba Josu Aspiazu IZUSTARRI Taldeko zinegotziak zera dio, lehenengo puntuan aurreko bilerako akta onartzerakoan zera jasotzen dela 2005-12-29ko gaztelerazko alean 19. orrialdean Izustarririk 2 emendakin aurkeztu zituela, eta zuzenagoa dela zera jasotzea, gaztelerazko eta euskarazko alean, horrela izan baitzen.

Zuzenketa edo emendakin gehiagorik aurkezten ez denez, bozketa eginda, batzordekideek aho batez onartu dute 2006-03-30eko akta, azalduko aipamenak kontuan izanik.

2.- HIRIGINTZA.-

2.1.- ZUMAIAKO ARAU SUBSIDIARIOEN 1.go ZENBAKIDUN ALDAKETA 12.H.E. (12 2.EU) TORREAGAKO BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZAK 1.go SEKTORERA (PUNTANUETA II) LEKUALDATZEA, 12 2.EU-ko (TORREAGA) BIRRANTOLAKETA ETA HIRIGINTZA ARAUEN 34,3 ARTIKULUAREN ZEHAZTAPENARI BURUZKOA, BEHIN-BEHINEKO IZAERAZ ONARTZEA, BIDEZKO BADA.

Alkateak zera dio dokumentuari hasierako onarpena otsaileko plenoan eman zitzaioela. Ondoren, jendaurreko agerraldi epea zabaldu zen, eta Kosta eta Errepideetara igorri zen. Kostako txostena baldintzatua baina aldekoa izan da; deslindea ez zegoela behar bezala marraztuta zioen, besteak beste. Errepide Saileko txostena, aldiz, aldekoa izan da, eta ez du aldaketarik proposatu. Beraz, une honetan behin-behineko onarpena ematea dagokigu.

Gaiak badu bere garrantzia eta presa ere bai. Saihesbideko lanak Torreagako gunera iritsi aurretik, komeni da behin betiko onarturik egotea eta hitzarmenean jasotako epeak betetzea.

Arau Subsidiarioen aldaketa honek hiru arlotan du eragina, batetik babes ofizialeko etxebizitzak Torreagako gunetik, Puntaneta II-ra aldatzea, AU 12 U.E 12.2ko aprobetxamenduaren berrantolaketa eta 34,3 atalaren aldaketa, hau da eraikigarri den muga gainditu gabe etxebizitza kopurua %20ra arte igotzeko aukera ematen duena. Ulertzen dugu atal horren arabera etxebizitza gehiago horietan ere lurraren sailkapenaren arabera dagokion etxebizitza babestu kopurua bermatu behar dela.

EB-BERDEAK-eko ordezkariak Torreagako hirigintza-hitzarmenaren laugarren estipulazioan dioena irakurtzen du. Non besteak beste babes ofizialeko etxebizitzak gunetik kanpo egitea jasotzen den eta aprobetxamendu berdina mantenduz etxebizitza gehiago egingo balira, hots bederatzi, eta hitzarmenik ez balego Torreagako gunean bertan eraiki beharko lirakeela.

Alkateak zera erantzuten dio hitzarmen hori Plenoak onartu zuela eta une hartan eraikigarri den muga gainditu gabe etxebizitza kopurua % 20ra arte igotzeko aukera ez zela kontsideratu, 34,3 atalaren arabera. Beraz artikulua horren aukera erabiltzen bada, etxebizitza kopuru handiago horri dagozkion babes ofizialeko etxebizitza kopurua ere eraiki egin behar da eta hitzarmenik ez bada gune berean eraiki beharko dira. Hori garbi gelditu dadila.

Hirigintza Batzordeko diktamenak hau dio:

ZUMAIAKO PLANGINTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN 1 ZENBAKIDUN ALDAKETA —12 H.E. (12.2 EU) TORREAGAKO BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZAK 1. SEKTORERA (PUNTANUETA II) LEKUALDATZEA, 12.2 EUko (TORREAGA) BIRRANTOLAKETA ETA ARAU SUBSIDIARIOEN 34.3 ARTIKULUAREN ZEHAZTAPENARI BURUZKO AGIRIA— BEHIN-BEHINEAN ONARTZEARI BURUZ HIRIGINTZA BATZORDEAK EGINDAKO DIKTAMENA.

AURREKARIAK

1.- AURRERAPENA: 2004ko azaroaren 17ko 246/04 Dekretuaren bitartez.

- 2.- Iradokizun bat aurkeztu zen denborarekin eta formarekin lotuta.
- 3.- Udalbatzak 2006-02-09an egindako osoko bilkuran, irizpide eta helburu orokorrak onartu ziren.
- 4.- Udalbatzak 2006-02-09an egindako osoko bilkuran, hasierako onarpena eman zitzaion jarritako alegazioa ebazteko dokumentuari.
- 5.- Kosten eta errepedeen txostenak eskuratu genituen.

Aldaketaren testua idazteko ardura duten udal-zerbitzu teknikoek behin-behineko onarpeneko agiria idatzi dute, deskribatutako aurrekarien arabera, eta, orain, agiriari behin-behineko onarpena ematea dagokio, udal-teknikariak egindako txostenarekin bat etorritz, eta agiria Gipuzkoako Foru Aldundira bidaltzea.

Bozketa eginik, egitatezko hamahiru korporaziokideetatik bilerara bertaraturiko hamabi korporaziokideen aldeko zazpi botorekin (bost EAJrenak eta 2 PSOerenak), lau abstentziorekin (bi IZUSTARRIrenak eta bi EArenak) eta aurkako boto batekin (EB-Berdeak), 7/1985eko apirilaren 2ko Eraentza Lokaleko Oinarriak arautzen dituen legeko 47,3 i) artikuluan ezartzen duen korporaziokideen legezko kopuruaren gehiengo absolutua betez, ERABAKIDA:

LEHENENGOA: Zumaiako Udalaren ekimenez bultzatutako **ZUMAIAKO ARAU SUBSIDIARIOEN 1. ZENBAKIDUN ALDAKETA 12.H.E. (12 2.EU) TORREAGAKO BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZAK 1. SEKTORERA (PUNTANUETA II) LEKUALDATZEA, 12.2 EUko (TORREAGA) BIRRANTOLAKETA ETA ARAU SUBSIDIARIOEN 34,3 ARTIKULUAREN ZEHAZTAPENARI BURUZKO AGIRIA** behin-behineko izaerarekin onartzea.

BIGARRENGOA: Espedientea Gipuzkoako Foru Aldundi txit garaira igortzea, behin betiko onarpena jaso dezan.

2.2.- ARRANTZALEEN KOFRADIAREN DONAZIOA ONARTZEA, BIDEZKO BADA.

Alkateak dio juridikoki irtenbide korapilatsua zuen gaia izan dela. Zumaiako Arrantzaleen Kofradia Autonomia Erkidegoko kofradien legera egokitu gabe zegoen, ez zeukan gobernu-organorik ez eta jarduneko kiderik ere. Beraz, Eusko Jaurlaritzak Batzorde Likidatzaile bat eratu zuen, eta bertan Gipuzkoako Kofradien Elkarteko ordezkari bat ere bazegoen. Batzorde honek besteak beste kofradiaren ondasunak doantzan Udalari ematen dizkio eta Zumaiako Arrantzaleen kofradia iraungitzaile ematen du.

IZUSTARRIko bozemaileak dio plenora luzatu den Hirigintza Batzordeko diktamena gatzelania hutsean dagoela, eta hurrengo baterako euskaraz ekartzea ere badagoela.

EB-Berdeak-eko ordezkariak Udalak kofradia doantzan jasotzeak ez al duen titularitate aldaketa bat suposatzen galdetzen du. Eta gaineratzen du museo bezala erabiltzearen baldintza oso murrizta dela eta erabilera zeharo mugatzen duela.

Alkateak erantzuten du Batzorde Likidatzaileak eraikuntzaren lehenengo solairuan dagoen enkanteen aretoa museo bezala erabiltzera baldintzatzen duela. Soilik enkanteen aretoa. Ezartzen duten baldintza bat da eta logikoa iruditzen zait, zati batean gainera beraiek diruz lagundu dutelako bertan egin diren lanak.

PSOE-ko bozemaileak dio, zati batean bakarrik mugatzen duela erabilera, hau da enkantearen aretoari dagokionez, gainerantzean, eraikuntzaren erabilera askea da.

HIRIGINTZA-BATZORDEAREN DIKTAMENA, ARRANTZALEEN KOFRADIAREN ERAIKINAREN DONAZIOA ONARTZEARI BURUZ.

AURREKARIAK

2002. urtean, Zumaiako Udalak ofizialki hasi zituen izapideak Eusko Jaurlaritzan, Nekazaritza eta Arrantza Sailean. Agerian jarri zuen zer egoera juridikotan zegoen Arrantzaleen Kofradia (kide bakar bat ere ez dago jardunean, ez du gobernu-organorik eta bere estatutuak ez daude legera egokituta) eta jakinarazi zuen Udalarri interesatzen zaiola Kofradiaren eraikinak duen balio historikoari dagokion erabilera ematea.

Hainbat bilera egin, txosten juridikoak idatzi, telefonoz hitz egin, erregistroko informazioa lortu... ondoren, Kofradiaren likidazioa egiteko kudeaketa-batzordea osatu zen, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura sailburuaren 2006ko otsailaren 23ko aginduaren arabera. Agindu horrek 2005eko apirilaren 15eko agindua aldatzen du.

OINARRI JURIDIKOAK

Kofradiaren likidaziorako kudeaketa-batzordeak 2006ko martxoaren 30ean egindako bileran, honako oinarri hauek agertu zituen:

1.- Zumaiako Arrantzaleen Kofradia **deseginda** dago gaur egun (*kiderik ez duelako jardunean, gobernu-organoa falta zaiolako, eta, horrez gain, estatutuak ez daudelako egokituta ekainaren 25eko 16/1998 Legean xedatutakora*), noiz likidatu eta desagertuko den zain.

2.- **Kofradiak ez du kide bakar bat ere jardunean**, eta, hortaz, **ez du gobernu-organorik**. Beraz, batzar nagusiaren ordezkudeaketa-batzorde honek erabaki beharko du ondasunekin zer egin, eta behin betiko amaitu beharko du Kofradia.

3.- **Zumaiako Arrantzaleen Kofradia da Zumaiako Marinelen Kofradiaren antzinako eraikinaren jabea**. Eraikin hori Txomin Agirre kaian dago, 3. zenbakian (Azpeitiko jabetza-erregistroko ohar soil baten arabera).

4.- Eraikinaren lehen solairuan antzinako enkante-aretoa zegoen. Areto horretan oraindik badaude garai hartako tresna batzuk, eta tresna horiek **balio historiko handia** dute gaur egun. Horregatik, **Zumaiako Udalarri eraikina interesatzen zaio, areto horretan museoa jartzeko**.

5.- Sektoreko legedian ez dagoenez aurreikusita zer egin behar den kofradia baten ondasunekin likidazioa egitean, Kode Zibileko 39. artikuluan xedatutakoa ezarriko litzateke. Artikulu horren arabera, honako hau egin beharko litzateke: "*Aurretik ez balitz ezer ezarrita egongo, ondasun horiek antzeko helburuetarako erabiliko lirateke, eskualde, probintzia edo udalerraren intereserako; izan ere, horiek jaso beharko dituzte batez ere desagertutako instituzioen irabaziak*".

6.- 2005eko irailaren 9an, Ogasun eta Herri Administrazio Sailak txosten bat idatzi zuen, eta bertan adierazi zuen zer egoeratan zegoen eraikina eta zer aukera zegoen Autonomia Erkidegoko ondarearen barruan sartzeko. Txosten horrek honako hau esaten zuen: "*Ondasunen xedeak bat egin behar du korporazioaren oinarritzko elkarte-xedearekin; hau da, arrantzarekin lotutako jarduerekin eta herri zehatz batean, Zumaietan. Hori dela eta, eraikinaren xede-erabilera bateragarria da haren titularitatea Zumaiako Udalarrena izatearekin; batik bat, aintzat hartuta titularitate hori baldintzapekoa edo modupekoa izan daitekeela*".

7.- Txosten horren arabera, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailaren ustez udalerrri horretako baxurako arrantzaren edo udalerrri horretako arrantza-profesionalen taldearen onerako erabilera bat eman badakioke eraikinari, eraikinak EAEko ondarearen parte izatera pasa beharko luke. Baldintza horietako bat bera ere ez denez betetzen kasu honetan, **Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailari egoki iruditu zaio eraikinaren titularitatea Zumaiako Udalaren esku geratzea**.

Baldintzak azaldu ondoren, Zumaiako Kofradia likidatzeko kudeaketa-batzordeak honako erabaki hau hartu du:

Lehena: Zumaiako Udalari ematea Zumaiako Marinelen Kofradiaren antzinako eraikina — Txomin Agirre Kaiko 3. zenbakiko eraikina—, museo bat egiteko lehenengo solairuan kokatuta dagoen antzinako enkante-aretoan.

Bigarrena: Zumaiako Arrantzaleen Kofradia amaitutzat ematea, aurretik deskribatutako ondarearen titular izateari uzten dion unetik aurrera.

Hirugarrena: erabaki hau Euskal Autonomia Erkidegoko Arrantzaleen Kofradien eta Kofradien Federazioen Erregistrora bidaltzea, Zumaiako Arrantzaleen Kofradiaren likidazioaren eta amaieraren inskripzioa egiteko.

Laugarrena: kudeaketa-batzordeko presidenteari ahalmena ematea erabaki hau bete beharrekoa izan dadin egin beharreko izapideak egiteko, Zumaiako Udalak erabaki hau onartu ostean dagokion prozedura beteta.

Horren ondorioz, hirigintzako informazio-batzordeak 2006ko maiatzaren 22an erabaki zuen udalbatzaren osoko bilkurari proposamen hau luzatzea eta bozketa eginik, egitatezko hamahiru gorporaziokidetatik bilerara bertaraturiko hamahiru korporaziokideen aho batasunean ERABAKI DA:

- 1- Kudeaketa-batzordeak Udalari donazioa egitea onartzea, Marinelen Kofradiaren antzinako eraikinaren likidazioa egiteko Zumaiako Arrantzaleen Kofradiari, museoa egiteko eraikinaren lehen solairuan kokatuta dagoen antzinako enkante-aretoan.
- 2- Alkate andreak ahalmena ematea Udalaren izenean eta haren ordezkari sinatu ahal izateko horretarako sinatu beharreko agiriak eta egin beharreko eskritura publikoa.

3.- HAZIENDA.-

3.1.- UDALEKO 2. KREDITU ALDAKETA ETA SAN JUAN EGOITZAKO 2. KREDITU ALDAKETA ONARTZEA, BIDEZKO BADA.

Hazienda Batzordeko lehendakariak dio Udaleko 2. kreditu aldaketa eta San Juan Egoitzako kreditu aldaketaren proposamena orain 15 egun aurkeztu zela Hazienda Batzordean.

Guk aurkeztutako proposamenak lau ardatz nagusi ditu gastu partiden gehikuntzan:

1.- Batetik, langileen ordainketei dagokien igoera: % 4,6koa.

Eta, bestetik, ondasun arrunten eta zerbitzuen erosketak ere urte batetik bestera KPIaren igoera izaten du eta egokitzapen hori egiten da.

2.-Transferentzia arrunten atala Administrazioetik jasotzen ditugun diru-laguntzei lotuta dago (Diputazioetik, Jaurlaritzatik eta Estatutik).Onartuta dauden diru-laguntzak dira eta kontzeptu horietan gastu bat egin behar da.

Hemen jasotzen dira, besteak beste:

Zumaiako web orria, Gipuzkoako Foru Aldundiko diru-laguntzari lotuta dagoena; gizarte-larrialdietarako diru-laguntzak, Eusko Jaurlaritzak ematen dituen diru-laguntzei lotuak;

Baseri-bideak, Urkomeko diru-laguntzari lotuak;

Alhondigako erreforma, Eusko Jaurlaritzako diru-laguntza duena;

Ekoskan , Ihoberekin lotua;
Santixo hondartzako PERIa; Estatuko diru-laguntza...

3.- Inbertsio errealean atalean azpimarragarriak dira 2005-2015 planaren barnean aurreikusten diren ekintzak; hala nola, erosketa eta desjabetzeak. Plan honi lotuta ageri da baita ere Herri Eskolako pilotalekua.

4.- Beste partida batzuk beharrezkoak jotzen direnak: Talaimendin lurra erosten hasteko; Oikiako jangela egokitzeko; Algorriko ekipamendua...

Hazienda Batzordean aurkeztutako kreditu-aldaketaren proposamena hau izan zen. Alderdi sozialistak aldaketa bat proposatu zuen, hau da, alderdi politikoei ematen zaien diru-laguntzen banaketa berri bat egitea. Banaketa berri horrek alderdi politikoen diru-laguntzen iguera bat suposatzen du. Iguera horren finantziazioa kulturako zinegotziaren % 50eko liberazioaren bidez lortzen da.

Beraz, onarpenera luzatzen den proposamena hau da:

2006KO 2 ZK-KO KREDITU ALDAKETA ETA KONPROMISO KREDITUAK ALDATZEKO PROPOSAMENA			
GASTU PARTIDEN GEHIKUNTZA			2.665.370,00
I. KAP. - Pertsonalaren gastuak			29.880,00
1-08-00-121-121-00-02	Udalhitz hitzarmeneko iguerak (% 4,6)	29.880,00	
II. KAP. - Ondasun arrunten eta zerbitzuen erosketa			78.629,00
1-08-00-227-121-00-96	Zumaia.net web orria	16.000,00	
1-08-00-227-121-00-94	Sailen berrantolaketa	14.130,00	
1-04-00-221-121-00-01	Zerbitzu Orokorretako energia elektrikoa	650,00	
1-05-00-221-122-00-01	Bake Epaitegiko energia elektrikoa	38,00	
1-05-00-221-313-80-01	Gizarte Zentroko energia elektrikoa	500,00	
1-01-00-221-433-00-01	Energia elektrikoa - argi publikoa	3.720,00	
1-03-00-221-451-20-01	Energia elektrikoa - kultur etxeak	175,00	
1-07-00-221-452-31-01	Energia elektrikoa - Odieta frontoia	126,00	
1-07-00-221-452-32-01	Energia elektrikoa - Oikiako frontoia	79,00	
1-07-00-221-452-50-01	Energia elektrikoa - Itsaskiroldegia	108,00	
1-05-00-221-313-80-03	Gizarte Zentroko gas-hornidura	4.000,00	
1-02-00-221-422-00-04	Ikastetxeetako gasa	3.130,00	

1-05-00-222-313-90-01	Gizarte Zerbitzuetako telefonoa	1.000,00		
1-10-00-222-444-00-01	Interpretazio-zentroko telefono-deiak	2.000,00		
1-10-00-222-451-20-01	Kulturako telefonoak	270,00		
1-03-00-222-751-00-01	Turismoko telefonoa	120,00		
1-01-00-227-442-10-99	Etkez etxeko zabor-bilketa	6.870,00		
1-01-00-227-442-20-99	Bide-garbiketa	9.050,00		
1-01-00-227-443-00-99	Hilerriko kontratua	1.117,00		
1-02-00-227-451-60-04	Ludotekako kontratua	814,00		
1-02-00-227-451-60-97	Gaztetxolako kontratua	1.284,00		
1-02-00-227-451-60-99	Udaleku Irekietako kontratua	3.521,00		
1-04-00-222-611-00-05	Informatikako komunikazioak - IZFE	1.820,00		
1-04-00-227-121-00-01	Eraikinen garbiketa	515,00		
1-05-00-227-122-00-01	Bake Epaitegiko bulegoen garbiketa	70,00		
1-05-00-227-313-80-01	Gizarte Zentroaren garbiketa	330,00		
1-05-00-227-313-90-01	Gizarte Zerbitzuetako bulegoen garbiketa	2.077,00		
1-01-00-227-413-00-01	Komun publikoen garbiketa	365,00		
1-01-00-227-449-00-01	Brigadako aldagelen garbiketa	33,00		
1-02-00-227-451-60-01	Ludotekaren garbiketa	130,00		
1-02-00-227-451-60-11	Gaztetxolaren garbiketa	40,00		
1-03-00-227-451-60-12	Udaleku Irekien garbiketa	3.545,00		
1-07-00-227-452-31-01	Odieta frontoiaren garbiketa	190,00		
1-07-00-227-452-32-01	Oikiako frontoiaren garbiketa	155,00		
1-07-00-227-452-50-01	Itsaskiroldegiaren garbiketa	174,00		
1-08-00-227-121-00-98	Laneko arriskuen prebentzioa	483,00		
	IV. KAP. - Transferentzia arruntak		81.361,00	
1-11-00-481-110-00-00	Alderdi politikoen diru-laguntzak	17.094,00		
1-07-00-481-452-10-01	Kirol-elkarte federatuen diru-laguntzak	24.000,00		
1-01-00-421-442-10-01	Urola Kostako Mankomunitatea, zaborteia, hondakin solidoak birziklatzea	18.447,00		
1-04-00-421-322-00-00	Urola Kostako Mankomunitatea, zerbitzu	2.347,00		

10	nagusiak			
1-09-00-421-455-10-60	Urola Kostako Mankomunitatea, hizkuntza normalkuntzarako zerbitzua	727,00		
1-03-00-421-751-00-02	Urola Kostako Mankomunitatea, turismoaren garapena	2.161,00		
1-05-00-480-313-20-09	GLL - Gizarte-larrialdietarako laguntzak	14.885,00		
1-01-00-481-456-00-01	Hondartzetako zaintza-zerbitzua	1.700,00		
	VI. KAP. - Inbertsio errealak			
			2.475.500,00	
1-06-00-600-444-00-01	Talaimendiko lurren erosketak	30.000,00		
1-06-00-601-432-00-01	2005-2011 Plan Bereziko erosketak eta desjabetzeak	900.000,00		
1-06-00-601-432-00-02	2005-2011 Plan Berezia	300.000,00		
1-06-00-601-432-00-04	PERCO - Apaindura publikoa	42.160,00		
1-06-00-609-531-00-02	Baserri-bideak (aglomeratuak, seinaleak...)	75.800,00		
1-06-00-622-435-00-02	Alhondigako proiektua	136.000,00		
1-06-00-622-435-00-03	Alhondiga berritzeko lanak	239.900,00		
1-03-00-622-435-00-05	Aita Mari Zineko altzariak	14.000,00		
1-06-00-622-413-00-01	Gernika parkeko komun publikoak	60.000,00		
1-10-00-629-444-00-03	Algorriko ekipamendua (taulak, ikus-entzunezkoak...)	35.000,00		
1-10-00-629-444-00-04	EKOSKAN kiroldegia	4.640,00		
1-06-00-643-432-00-01	Santiago hondartzaren urbanizazio-proiektua	166.000,00		
1-06-00-622-422-00-03	Herri Eskolako pilotalekua	370.000,00		
1-06-00-622-422-00-04	Oikian jangela jartzea	38.000,00		
1-06-00-622-452-50-01	Itsaskiroldegia	24.000,00		
1-01-00-622-456-00-02	Santixoko hondartzako kantina	40.000,00		
	GASTU PARTIDEN GUTXITZEA		29.729,00	
	I. KAP. - Pertsonalaren ordainketak		17.094,00	
1-08-00-481-452-10-02	Hautetsien oinarrizko ordainsariak	12.960,00		
1-08-00-160-110-00-01	Hautetsien gizarte-segurantza	3.265,00		
1-08-00-160-110-00-01	Hautetsien Elkarkidetzak	869,00		

		1.469.900,00	2.030.000,00	1.960.100,00
--	--	--------------	--------------	--------------

ALDERDI POLITIKOEI 2006an BANATU BEHARREKO DIRU-LAGUNTZA

Talde bakoitzeko	360,00
euro hileko Zinegotzi bakoitzeko	200,00
euro hileko Informazio Batzordera eta Udaleko osoko bilkurara azaltzeagatik	90,00
zinegotzi bakoitzeko euroak hileko Gobernu Batzordera azaltzeagatik	60,00
euro hileko Bozeramaile izateagatik	60,00
euro hileko Lehendakari izateagatik	280,00

	Zineg.	Talde bakoitzeko	Zinegotzi bakoitzeko	Informazio Batzordera eta osoko bilkurara azaltzeagatik	Gobernu Batzordera azaltzeagatik	Lehendakari izateagatik	Bozeramaile izateagatik	GUZTIR A	2005 % 4,6ko igoerarekin
EAJ	5	4.320,00	12.000,00	3.240,00	2.160,00	10.080,00		#####	#####
EA	2	4.320,00	4.800,00	2.160,00	0,00	0,00	720,00	#####	9.115,70
	3	4.320,00	7.200,00	3.240,00	0,00	0,00	720,00	#####	#####
IZUSTARRI									
PSOE	2	4.320,00	4.800,00	2.160,00	0,00	0,00	720,00	#####	9.115,70
EB	1	4.320,00	2.400,00	1.080,00	0,00	0,00	720,00	8.520,00	6.715,41
	13	21.600,00	31.200,00	11.880,00	2.160,00	10.080,00	2.880,00	#####	#####

Ehuneko /
Peso
Porzentual

	Zineg.							GUZTIR A	
EAJ	5							% 39,85	% 45,53
EA	2							% 15,04	% 13,62
	3							% 19,40	% 17,20
IZUSTARRI									
PSOE	2							% 15,04	% 13,62
EB	1							% 10,68	% 10,03
	13							% 100,00	% 100,00

**2005etik luzatutako
partidak**

Alderdi politikoen diru- laguntzak	62.706,00
Kultura zinegotziaren % 50eko liberazioa	17.397,00

Guztira 80.103,00

Alderdiei luzaturiko hitz-txandan IZUSTARRIk zera adierazten du Hazienda Batzordean azalduko errepikatuko duela. Hau da proposamenari ezezkoa emango diotela, ondorengo arrazoiengatik:

.-Kreditu aldaketak ezustekoak daudenean bakarrik erabili behar dira. Ezusteko bakarrak Herri Eskolako pilotalekua eta Udalhitz dira. Gainerako partida guztiak ez dira ezustekoak.

.-Kreditu aldaketa hau aurrekontuaren luzapen bat besterik ez da. Aurrekontu proposamenaren % 80 jasotzen du.

Aurrekontu bat ateratzeko adostasunetara iritsi beharrenean kreditu-aldaketa bat onartu da, eta, beraz, gure botoa aurkakoa izango da.

EAK dio IZUSTARRIren iritziarekin bat datorrela. Akordioetara iristeko ez da borondaterik egon, ez da aurrekontu-proposamen bat onartzeko negoziazio prozesurik ireki. Kreditu-aldaketa hau onartzeak ez du suposatzen aurrekonturik dagoenik. Horregatik, gure botoa ezezkoa izango da.

PSOE-k zera dio kreditu-aldaketaren proposamena bozkatzen ari garela, onarturiko aurrekontu bat ez daukagulako, bestela ez ginateke egoera honetan egongo.

Partida gehienak aurrez onartutako proiektuak finantzatzeko izendatzen dira. Gurrutxaga plaza, Odieta, ... Proiektu horiek aurrekontuak jaso beharko lituzke. Aurrekonturik ez dagoenez, edo kreditu-aldaketa hau onartzen dugu edo proiektuak gelditu egiten dira. Eta azpimarratu behar da gutako askok proiektu horiek onartu ditugula eta ez badugu diru-izendapenik onartzen ezingo liratekeela egin. Ondorioz, zumaiarrei esplikazio pisudunak eman beharko genizkieke. Adibidez, Herri Eskolan pilotalekurik zergatik ez litzatekeen egingo...

Alderdi Sozialistak alde bozkatuko du, besterik ezin duelako egin udaletxearen gestioa eta garapena bermatzeko.

EB-BERDEA-k alderdiko ordezkariak Kontuhartzailtza Sailari kreditu-aldaketa hau balidatu dezala eskatzen dio. Ez gaude aurka, baina kreditu-aldaketa honen bidezotasuna balidatzea eskatu nahi diogu Kontuhartzailtzari.

EAJren iritzian, diru-izendapenik ez edukitzeak onarturiko proiektuak ez gauzatzea esan nahi du. Santiagoko Txiringittoa, Oikiako jangela, Alhondiga, ingurumena gordetzea ... eta beste hainbat eta hainbat proiektu ados gaudenak baina ezingo liratekeenak egin.

Hala ere, bakoitzak askatasun osoa dauka nahi duen bezala pentsatzeko, baina erantzukizun bat ere bai zumaiarrekiko.

EAK adostasuna azaltzen du proiektu asko eta askorekin, Herri Eskolako pilotalekua eraikitzearekin, Talaimendiko lur sailak erosten hasteko diru-izendapenarekin... Hori herria aurrera eramatea da eta gure alderdia herria aurrera ateratzearen alde dago, ez herria geldiaraztearen alde. Ados ez gaude, aldiz, horretarako nahitaez kreditu-aldaketa onartu behar denarekin. Dagoeneko bost hilabete pasatu dira aurrekonturik gabe gaudela, eta gauzak ez dira aldatu denbora honetan. Ez da inondik inora negoziatzeko borondaterik adierazi. Gure ikuspuntutik kontraesana hor dago. Guk kreditu-aldaketaren aurka bozkatuko dugu, baina ados gaude Oikiako jangelarekin, pilotalekuarekin... Argibide gisa, Erosketak eta desjabetzeak atalean agertzen den kopuruak zer barneratzen duen galdetzen da.

EAJk erantzuten du besteak beste hein handi batean Erkibe etxea eta inguruak (Aladrenen lorategiaren zati bat ...) desjabetzeko aurreikusi dela. Saihesbidea eta lur azpiko aparkalekuak egin ahal izateko gauzatu behar dira desjabetzak.

IZUSTARRI eta EAJren artean eztabaida sortzen da. IZUSTARRIk dio ez dela negoziatzeko saiakerarik egon. EAJk erantzuten du bi alderdien artean desadostasunak erroan daudela, azpikontratazioak direla eta. Bi alderdiek azpimarratzen dute atek zabalik dituztela negoziaketetarako.

PSOEk dio negoziaketa-eredu bat dela proposamen bat Batzordean aurkezten denean hobekuntzak sartzeko ahaleginak egitea. Guk era horretan egin genuen aldeak hurbiltzeko asmoz gure proposamena aurkeztu. Ez baldin bada proposamenik aurkezten zaila da adostasunetara iristea. Kontraesana dago Udala ez dela geldiarazi nahi esatean eta, aldiz, diru-izendapenik ez onartzean. Adibidez, Kofradiako proiektua onartu eta diru-izendapenik ez.

Egitasmo batzuk onartzen ditugun momentutik berauek gauzatu daitezen beharrezko gaitasun ekonomikoa aitortu behar diegu.

EAK dio Udala gelditzearen errua ez litzatekeela aurka bozkatzen dugunona izango. Denbora honetan ez da negoziatzeko borondaterik izan, eta orain aurrekontuaren itxura guztia duen kreditu-aldaketa aurkezten da onarpenera proiektuak aurrera ateratzeko ezinbeste bezala. Bestalde, adierazi gehiegizkoa dirudiela 2005-2015 udal egitasmorako izendatzen diren 900.000 €

EAJk baieztatzen du beraz Talaimendiko lurren erosketa hasteko egitasmoaren aurka daudela, Erkiberen desjabetzarekin, Alde Zaharreko argiztapenarekin, Aita Mari zineko altzariak erostearekin, Ekoskanarekin, Komun publikoekin, Santixoko hondartzako egitasmoarekin, Oikiako jangela, Itsakiroldetik aldagelekin...

IZUSTARRIk dio diru-izendapen horiek banan-banan onartzen ditugun negoziatu eta adostu egin behar dela. Guk aurrekontuei osoko zuzenketa aurkeztu genion, eta EB-Berdeak zuzenketa partzialak. Bakarra ere ez duzue erantzun. Aldiz PSOEk egiten duen proposamena alderdi politikoaren diru-laguntzak egokitzearena bapatean onartzen da.

EAJk ez du ulertzen zertan jokatzeko ari diren proiektuekin ados badaude. Era guztietara prozesu honetan izan duzue aukera proposamenak aurkezteko eta proposamen bakar bat jaso dugu.

IZUSTARRIk dio PSOE-k alde bozkatuko zuela esan zuela eta bere proposamena jaso egin dela. Guk aurkeztuko bagenu ez dut uste jasoko liratekeenik.

PSOEtik erantzuten da Batzordean ez zutela alde bozkatuko zutenik adierazi. Guk proposamena egin genuen beharrezkoa iruditu zitzaigulako. Eta proposamen hori jasotzea oso ongi deritzogu.

Ondoren bozketa egiten da,

Eskubidezko zinegotzi kopurua: 13
 Bilerara bertaratuak: 12 (5 EAJ, 2 IZUSTARRI, 2 EA, 2 PSOE, 1 EB-BERDEAK)
 Aldeko botoak: 7 (5 EAJ, eta 2 PSOE).
 Aurkako botoak: 5 (2 IZUSTARRI, 2 EA eta 1 EB-BERDEAK).

ERABAKI DA:

1.- Udaletxeko 2006ko 2 zenbakidun kreditu-aldaketaren proposamena onartzea konpromiso-kredituak aldatzearena eta alderdi politikoaren diru-laguntzaren banaketa berria.

2.- Udaletxeko bigarren zenbakidun Kreditu Aldaketa jendaurreko agerraldian jarri hamabost eguneko epean, oharpenak aurkez daitezzen helburuaz. Oharpenik aurkeztuko ez balitz, akordio honek, behin betiko izaera jasoko luke, espediente honek aurrekontu orokorra onartzeko eman beharreko izapidetza izan beharko duelarik.

Ondoren Hazienda Batzordeko lehendakariak San Juan Egoitzako 2. kreditu-aldaketaren proposamena aurkezten du. Laburbilduz, planteamendua hau litzateke: soldatetan, Udalhitzen egokitzapena, urtetik urterako kontratuen KPIren igoera, (argindarra, mantenimendukoak ...), margoketa ...

Proposamenak hau dio:

<u>SAN JUAN EGOITZAN 2006KO 2 ZK-KO KREDITU ALDAKETA EGITEKO PROPOSAMENA</u>			
	GASTU PARTIDEN GEHIKUNTZA		53.425,00
	I. KAP. - Pertsonal gastua		7.815,00
1-00-00-130-000-00-02	Udalhitz hitzarmeneko igoerak	7.815,00	
	II. KAP. - Ondasun arrunten eta zerbitzuen erosketak		30.159,00
1-00-00-221-000-00-01	Energia elektrikoa	414,00	
1-00-00-221-000-00-03	Gas propanoa	435,00	
1-00-00-221-000-00-06	Elikagaiak	2.725,00	
1-00-00-221-000-00-09	Garbitzeko produktuak	397,00	
1-00-00-222-000-00-05	Izfenet	3.370,00	

1-00-00-227-000-00-01	Garbiketa-kontratua	1.299,00	
1-00-00-227-000-00-04	Kontratu soziokulturalak	1.339,00	
1-00-00-227-000-00-07	Laguntzaileen kontratua	16.452,00	
1-00-00-227-000-00-08	Beste kategoria batzuetako kontratua	2.191,00	
1-00-00-227-000-00-09	Legionella-kontratua	898,00	
1-00-00-227-000-00-10	Mantentze-kontratua	639,00	
	VI. KAP. - Inbertsio errealak		
			15.451,00
1-00-00-622-000-00-00	2005eko inbertsio-plana (kanpoko pintura)	15.451,00	
	ERABILTZEA PROPOSATZEN DIREN BALIABIDEAK		
	Sarrera handiagoak		11.588,00
2-00-00-720-000-00-01	GFA - 2005eko inbertsio-planerako diru-laguntza	11.588,00	
	2005eko diruzaintzako gerakina		41.837,00
2-00-00-870-000-00-02	2005eko diruzaintzako gerakina	41.837,00	

IZUSTARRIk dio San Juan Egoitzako kreditu-aldaketaren proposamena ez dela Batzordean aztertu. Proposamen hau ere aurrekontu ezaren ondorio dela ondorioztatzen dela. Beraz gure botoa aurkakoa izango da.

Earen iritzian, oinarritzkoa eta beharrezkoa da, eta, beraz, alde bozkatuko dute.

PSOEk guztiz beharrezkotzat jotzen du kreditu-aldaketa honetan proposatzen dena. Zentzuzko proposamena da. Garbitasun kontratuen zenbatekoa egokitzea, argindarrarena... Gainera, aurrekontuak berak ere ezin izango zuen hau guztia aurreikusi eta kreditu-aldaketa egin beharko litzateke.

Ondoren bozketa egiten da,

Eskubidezko zinegotzi kopurua: 13
Bilerara bertaratuak: 12 (5 EAJ, 2 IZUSTARRI, 2 EA, 2 PSOE eta 1 EB-BERDEAK)

Aldeko botoak: 10 (5 EAJ, 2 EA, 2 PSOE eta 1 EB-BERDEAK).

Aurkako botoak: 2 (IZUSTARRI) .

ERABAKI DA:

1.- San Juan Egoitzako 2006ko 2. zenbakidun kreditu-aldaketaren proposamena onartzea.

2.- San Juan Egoitzako bigarren zenbakidun Kreditu Aldaketa jendaurreko agerraldian jarri hamabost eguneko epean, oharpenak aurkez daitezzen helburuz. Oharpenik aurkeztuko ez balitz, akordio honek, behin betiko izaera jasoko luke, espediente honek aurrekontu orokorra onartzeko eman beharreko izapidetza izan beharko duelarik.

4.- MOZIOAK.

4.1.- MOZIOAK PAOLA.-

A).- IZUSTARRI, EA eta IUk aurkeztua.

IZUSTARRIKO ordezkariak mozioaren testua irakurtzen du.

ZUMAIAKO PAOLA ALDIZKARIAREN INGURUKO MOZIOA

Gobernu askok komunikabide publikoak kontrolatu egiten dituzte, nahi bezala erabiltzeko. Zumaiari dagokionez, udal gobernuak ere antzera jokatu du, "*Zumaiako Paola*" udal aldizkaria udal informazioa desitxuratzeko erabili baita. Ondo asko gogoratzen ditugu hasierako zenbaki haiek, alderdien iritzia agertu ere egiten ez zenean.

Aldizkari horren inguruko eztabaida ez da berria. 2001eko Kultura Batzorde batean, aldizkariari buruzko hainbat galdera egin ziren eta, besteak beste, bi azalpen hauek eman ziren:

1º) Pertsona batek erabakitzen du zein gai argitaratu; bere garaian kulturako zinegotzia (María Eugenia Arrizabalaga) zen pertsona hori.

2º) Guztien iritzia sartzeko aukera zela eta, erantzuna hauxe izan zen: "gaiak ez dira era tendentziosan ematen ez da iritzitarako foro bat, eta hala, ez da alderdiek beren iritzia aurkezteko lekua, bestela M^aEugeniak berak ere beste era batera idatziko lituzke".

Orain, alderdi politikook geure iritzia ematea badaukagunean, badirudi Udala gobernatzen duen taldeak alderdikoi izan nahi duela.

Denborak aurrera eginda, alderdiok txoko bat lortu genuen udal kudeaketari buruz iritzia emateko, baina gainerako ia aldizkari oso-osoa PNVk bere alde propaganda egiteko besterik ez da. Horrela, *Zumaiako Paola*-rea azkeneko zenbakian, ikuspegi demokratikotik begiratuta, manipulazioa onartezina da. Adibidez, udal aurrekonturik zergatik ez daukagun azaltzean, bi orritan, udal aldizkarian baino alderdi politiko baten aldizkarian askoz ere egokiagoak lirakeen baieztapenak egiten dira. Aldizkaria guztiok ordaintzen dugu (gutxi gorabehera 6.500 € zenbakiko), baina PNVk udal aldizkaria nahi duen bezala eta bere mesederako erabiltzen du, informazioa nahi duen bezala manipulatu, eta hori onartezina da.

Horregatik guztiarengatik, mozio hau aurkezten dugu, Udalbatzarrean eztabaidatzeko:

- Zumaiako Udalbatzarrak gaitzetsi egiten ditu Zumaiako udal aldizkariko azken zenbakiko eduki batzuk, udal gobernuko taldeak bere alderdiaren mesederako erabili dituelako.

Batzorde bat sortu da alderdi politiko guztiekin, Argitalpen Batzordea izango dena.

Mozio hau hurrengo *Zumaiako Paola-n* eta udaleko albisteak ematen dituzten gainerako hedabideetan argitaratuko da.

IZUSTARRI

EA

EB-BERDEAK

Izp: Andoni Etxaniz

Izp: Iñaki Agirrezabalaga

Izp: Cristina Forcada

Zumaian 2006ko martxoaren 14an.

Irakurri ondoren, IZUSTARRIko bozeramaileak esplikazio modura zera dio, aldizkariaren azken bigarren alea batez ere manipulazioaren muturreraino iritsi zela. Alderdiei zabaltzen zaien iritzien atalean zer adierazpen egiten ziren informazioaz baliatuz, oposizioko alderdiei erantzuteko erabili zela.

Guk zera eskatzen dugu denok jokoaren erregela berdinekin jokatzeko eskubidea. Alderdi bakar baten kolorea ager ez dadin denona den aldizkarian.

Alkateak EAJren iritzia, idatzi bat irakurriz adierazten du:

Oso ohikoa izan ohi da edozein motatako erakunde publikoetan aginterik ez duten alderdiek, erakunde hauek finantzaturako komunikabide publikoak manipulatzeko salaketa egozteko gobernuko taldekoei.

EA, Izustarri eta EBren arabera, "Zumaiako Paola" udal aldizkaria, "erabilia" izateaz gain, "udal izaerako informazioaren distorsio elementu bilakatu da".

Aurrekoa ez ezik, informazioa, alderdikoikeriaz eskaintzen omen da.

Beraien mozioan ondo adierazten duten bezala, udal aldizkariak, azken zenbaki askotan, Udalbatza osatzen duten alderdi guztien iritzia jasotzen ditu. Inork ukatu ezingo duena zera da: iritzi hori badela, kasu guztietan, edo gehienetan behintzat, "alderdikoia", edo beste era batera esan nahiago bada, "tendentzi" politiko guztietako interes eta iritzi alderdikoiei leio bat zabaltzen diena.

Ondorioz, Zumaiako Paolak Udalean dauden aukera politiko guztiei eskaintzen die bere lekua.

Espreki aipatzen duten azken aleari dagokionez, udal aurrekontuen egoerari buruz –onartu ez diren 2006ko aurrekontuak, hain zuzen- kontu ematen zuten atalean inolako gezurrik edo okerrik ez dagoela baieztatzen dugu.

Besterik gabe, momentu hartara arte gertatutakoaren berri ematen zen, gainontzeko komunikabideetan hainbestearainoko oihartzuna izan zuten kontu batek (oposizioko alderdiek eragindako oihartzuna, hain zuzen) udal gaiei buruz diharduen udal izaerako komunikabide batean ere azaltzeko moduko garrantzia bazuen ustetan.

Berez, orrialde horietan informazio okerrik ez azaltzeaz gain, mozioa izenpetzen duten alderdietako ordezkariak beraiek, izaera orokorreko hedabideetan esandakoa jasotzen zen: Horrela, 2005eko abenduaren 29an "Noticias de Gipuzkoa" egunkarian EAK, beste gauza batzuen artean, zera esaten zuten: "operazio horretan publikoa eta pribatuaren arteko ezberdintasuna galdu egiten da". Egunkari horretan bertan, 2005eko abenduaren 31ko datarekin irakur zitekeen: "EAK, Udalak urbanizazio lanak soilik finantzatu ditzala

proposatzen du, etxebizitzaren eraikuntzan sartu gabe". 2006ko urtarrilaren 3ko Hitza berriz, zera irakur daiteke: "Bi arrazoirengatik eman behar genuen ezezko botoa: Beheko Plazatik eta Basustako proiektuagatik".

Seguraski, hemerotekara jota antzeko adibide gehiago aurkitu daitezke.

Hariari jarraituz, 2006ko urtarrilaren 7an, larunbata, "Noticias de Gipuzkoa" egunkarian hau azaltzen zen: "Herri Plataformak gehitu duenez, EAJk "eskaintza bitxia" egin zien: "Aurrekontuak inorekin negoziatu gabe aurrera ateratzeko: aurrekontu orokorren bozketan abstenituz gero, gure emendakin partzialak aurrera aterako zirela", baieztapen hori, beraiei eta EBri aurkeztu zituzten emendakin partzialen zentzuari buruz egin zitzaizen galderaren inguruan Izustarrrik egindako interpretazioa izanik. Galdera hari eman zioten erantzuna, "Plenoa egin arte ez zutela erantzungo" izan zela jakin badakigu, abenduaren 19an, astelehena, Hirigintza Batzordea baino bost minutu lehenagotik Alkatetzako bulegoan emandako erantzuna izan zen eta.

Beraz, Zumaiako Paolaren 30. aleak, udal aurrekontuen onarpen ezari buruz informatu zuen. Zumaiarrentzat hain garrantzizkoa den gaiaren inguruan, Zumaiako hiritarrek informazio eskubidea dutelako, eta ez soilik beste zenbait komunikabidek emandako bertsioaz informatuak izateko eskubidea, neurri batean ere "alderdikoiak" izan daitezkeen medioak, eta, horien artean, udal izaerakoak ez diren arren, baita udal dirua jasotzen dutenak ere.

Egoera azaldu zen, egoeraren zergatiak, abenduko Pleno hartan egin ziren botazioen emaitzak, eta, aurreko guztiaren ondorioz, 2006an egin asmo ziren proiektuak nola geratzen ziren.

Talde politiko bakoitzak ditu, noski, egiten duena egiteko arrazoiak, eta bozkatzeko momentuan bere botoaren zentzuaren arrazoiak. Hori herritarren balorazioaren arabera geratzen den zerbait da. Baina ezin onartu daitekeena bakoitzaren posturak azaltzeko ariketa "alderkoikeritzat" salatzea da, logikaz, dudarik gabe postura horiek alderdi bakoitzak dituen arrazoietan oinarrituak direnean, eta zumaiarrek horrela ulertu beharko dituztenean.

Eta berez, alderdi guztiek, aldizkariaren 14 eta 15. orrialdeetan, arrazoi horiek azaltzeko aukera izan zuten, bakoitzak aukeratutako hitzen bitartez. Ze, idatziak, neurri handi batean, aipatutako gaiaren inguruan moldatuak izan baitziren, batzuek eta besteek eman nahi izan zioten ñabarduraz.

IZUSTARRIK erantzuten du Zumaiarrek informazio objektiboa jasotzeko eskubidea dutela. Eta EAJk ez daukala objektibitatearen monopoliorik. EAJ gu bezala subjektiboa da, PSOE, IU eta EAren antzera.

EAren iritzian, EAJk hedabideetan jaso dena (Hitza, Noticias de Gipuzkoa, ...) partziala dela dio eta gero EAJk Paolan berdin egiten du. Beraz nor esaten du egia? Horregatik, guk eskatzen dugu Paola herritar guztionak denez denok parte har dezagula beraren idazketan. Aldizkariak 30 orri baditu 28 EAJren ikuspegia azaltzeko erabiltzen dira. Oposizioa hiru alderdiek egiten dugun proposamena idazketa batzorde bat sortzea da, denok nahi duguna argitaratu dadin.

PSOEk dio beraiek beste moztio bat aurkeztu dutela eta ondoren eztabaidatuko dela. Hala ere, garrantzizko puntu bezala guk aldizkaria ez dugula desagerrarazi nahi da. Eta moztio

hau ez onartzea behartuta gaude. Gobernu hausketa puntual batek ez dezala aldizkaria desagerrarazi.

IZUSTARRIren iritzian, batez ere azken-aurreko Paolan jaso zirenak lotsagarriak dira. EA zegoenean ez zuen hobeto funtzionatzen, baina EA gobernutik atera denetik beldurgarria da.

PSOeri zuzenduaz IZUSTARRIk dio nola antolatuko den udalbatza osatzen dugun alderdi guztien Paola, EAJk alderdien iritziak argitaratu aurretik ezagutzen baditu eta hauei erantzuten erabiltzen badu beraiei dagokien iritzi atala? Zuek proposatzen duzue alderdi politikoei iritzirako lekua zabaltzea, baina horrek ez du bermatzen Paolaren inpartzialtasuna.

Paolaren idazketarako Batzorde bat eratu behar da non alderdi guztiak egongo diren eta era horretara bakarrik bermatuko da guztiona izango den Paola.

Mozio hau aterako ez balitz eta PSOErena bai, herren geldituko ginatke, mesedez eskatzen dizuegu gainerako oposizioko alderdion mozioari bai eman diezaiozuela.

PSOEk dio beraiek luzaturiko proposamenaren arabera Paola aldizkarian jasotzen direla udalbatzan ordezkariak duten alderdien iritziak. Aurrez ez ziren alderdien iritziak jasotzen, gaur bai.

Gu ez gaitu kezkatzen beste alderdiek gure jarduera politikoari buruz izan dezaketen iritziak. Gure aldeko botoak, kudeaketa eta egitasmo politiko sendo bategatik lortzen ditugu. Gure alderdiaren aldeko konfiantza ez dago baldintzatuta beste alderdiek guregatik zer esango dutenaren arabera. Guk gure iritzia daukagu eta azaldu egiten dugu. Besteek zer esan dezaketen kontuan hartu gabe.

Paolaren idazketa batzordea ez litzateke ezertara iritsiko bost iritzi ezberdin bateratzerik ez dagoenez. Ez gara gehiago luzatuko.

IZUSTARRIren iritzian ezin da ulertu PSOEk idazketa batzordea sortzeari baiezkorik ez ematea. Izan ere, batzorde horretan alderdi guztiak egongo liriteke ordezkariak eta gobernuaren jarduera kontrolatzeko erreminta bat gehiago litzateke. Batzorde horretan gehiengoa izango ginatke.

Bestela, soilik EAJren egia azalduko da.

IZUSTARRI oso zaila gertatzen zaio PSOEk hain nabarmena dena ez ulertzea.

Ez dugu ez gehiago ez gutxiago izan nahi, berdintasuna bermatu nahi dugu.

Ezin dugu ulertu PSOEk ez ulertzea.

PSOEn baitan zinegotzi batek baiezkoko iritzia du eta besteak ezezkoa.

EB-BERDEAK-ek baieztatzen du zenbait herritarrek Paola jasotzen dutenean zakarretara botatzen dutela propaganda delako. Eta hori egia hutsa da.

EAJk dio batzordeak erabaki arinak hartu beharko dituela gaur egun alderdien iritziak jasotzen ematen den denbora baino bixkorragoa izan beharko duela.

IZUSTARRIk dio EAJk oraindik ere beraien iritzia baino beranduago idazten duela, erantzunak izaten baitira.

EAJk dio ez dagoela erantzunak izan beharrik, plenoetan adierazten denari buruzko iritzia emanda nahikoa dela.

PSOEk dio beraien taldea bi zinegotziz osatzen dela, baina iritzi eta ahots bakarra dutela.

Ondoren bozketa egiten da,

Eskubidezko zinegotzi kopurua: 13

Bilerara bertaratuak: 12 (5 EAJ, 2 IZUSTARRI, 2 EA, 2 PSOE eta 1 EB-BERDEAK)

Aldeko botoak: 5 (2 IZUSTARRI, 2 EA, eta 1 EB-BERDEAK).

Aurkako botoak: 5 (EAJ) .

Abstentzioak: 2 (PSOE)

Berdinketa ematen denez, bigarren bozketa egiten da. Emaitzak berdinak direnez, alkatearen botoak erabakitzen du, ondorioz

ERABAKI DA:

PAOLA Udal Aldizkariari buruz IZUSTARRI, EA ETA EB-BERDEAK aurkeztutako mozioa ez onartzea.

B).- PSOEek aurkeztua.

PSOeko bozeramaileak hitzez hitz honela dioen mozioa irakurtzen du:

2006ko MAIATZA, OHIKO UDAL BATZARRA

ZUMAIAKO UDALEKO ALKATE PRESIDENTE ANDREA

Jakitun gara, Zumaiako herritarren artean, garrantzia eta interes handia piztu duela Zumaiako Paola bi hilabetekariak udal gobernuaren ekintzen berri zuzena izateko bide den aldetik. Informazioaren gardentasunari euste aldera, udalbatza osatzen duten talde politiko guztiek udal gobernuaren ekintzen gainean duten iritzia politiko ezberdinen berri herritarrei emateko, aldizkariaren atalek sorreran izan zuten izpirituari traiziorik ez egiteko eta alderdi bati propaganda egiteko elementu bihurtzeko tentazioa urruntzeko,

Zumaiako talde sozialistak, Toki-Entitateen Antolamendu, Jarduera eta Araubide Juridikoari buruzko Arautegiaren 97.3 artikuluan jasotakoaren babesean, Udalbatzak onartu dezan aurkezten du honako:

MOZIOA

Gobernu taldeari adieraztea:

- *Aldizkariaren hasierako diseinua berreskuratu dezala, udalbatza osatzen duten talde politiko guztien eserlekuen grafikoa barne dela.*
- *Aldizkarian jaso dadila Udal Plenoaren gai ordena bai eta aztertutako puntu bakoitzean talde guztiek emandako botoa ere.*
- *Eta azkenik, talde bakoitzaren iritzia jasotzen duen orria oso-osorik horretarako izan dadila, leku gehiago izan dezagun, iritzia ezberdinak kontrastatu ahal izateko eta*

horrela, herritarrek udal gobernuen ekintzen aurrean taldeek dituzten iritzi ezberdinen berri izan dezaten.

*Emiliano Cabañas Gonzalez
Udaleko Talde Sozialistaren bozeramailea*

PSOEk dio beraiek aurkeztutako mozioaren helburua aldizkarian alderdi politikoentzako gune gehiago izatea dela, bakoitzak bere ikuspuntu politikoa adierazi dezan. Aldi berean, udalbatza osoan alderdiek gai ezberdinei buruz izan duten postura adierazteko isla eta gai ordeneko puntuei alderdiek zein zentzutako botoa eman dioten adierazteko modua zabaltzea. Guri dagokigun zatian adieraziko genuke zein arrazoiengatik eman dugun baiezkoko edo ezezko botoa.

EAK dio ez daudela ados. Oposizioko alderdiok hogeita hamar lerrotan defendatu behar gara, gobernuan dagoen alderdiak mila lerrotan egurtzen gaituen bitartean.

IZUSTARRIK dio mozio honek ez duela arazoaren muina ukitzen. Ez dugu ulertzen oposizioko alderdi batek nola aurkeztu dezakeen zentzu honetako moziorik.

EAJk dio PSOEk funtsean eskatzen duena aldizkarian alderdi politikoei leku gehiago ematea dela.

Bide batez, plenoko gai ordena barneratu eta alderdi bakoitzak plenoko gaiei emandako botoen zentzua jaso.

PSOEk dio beraientzat garrantzizkoa ekimenak izatea dela, proposamenak aurkeztea, horrek ez du esan nahi Udal Gobernuarekin bat gatozenik, baizik eta iritzi politiko propioa dugula. Eta Paolan hori adierazi nahi dugu. Horregatik abstenitu gara aurreko mozioan.

Ondoren bozketa egiten da,

Eskubidezko zinegotzi kopurua: 13

Bilerara bertaratuak: 12 (5 EAJ, 2 IZUSTARRI, 2 EA, 2 PSOE eta 1 EB-BERDEAK)

Aldeko botoak: 7 (5 EAJ eta 2 PSOE)

Aurkako botoak: 3 (2 IZUSTARRI eta 1 EB-BERDEAK) .

Abstentzioak : 2 (EA)

ERABAKI DA:

PAOLA Udal Aldizkariari buruz PSOEk aurkeztutako mozioa onartzea.

EB-BERDEAK alderdiko zinegotziak, Cristina Forcada Unanuek, bilera aretoa utzi egiten du.

4.2.- AMNESTY INTERNACIONAL.

Alkate andreak bozeramaileen batzordean aztertutako mozioa dela dio eta ondoren mozioaren osotasuna irakurtzen du:

Koldo Andoni Casia Salazar, 72.496.495-N NANarekin, Donostiako AMNESTY INTERNATIONAL Taldeko koordinatzailea.

Azalpena:

*Kontrolatu gabeko armen ugaltzeak giza koste izugarria du, bereziki, munduko pertsona txiroen artean. Ondorengo hogeita hamar minutuetan, hogeita hamar pertsona hilko dira biolentzia armatua dela eta; gehienbat Hegoaldeko lurraldeetan. Mundu guztian zehar, 639 milioi arma arin mugitzen dira, arma bat hamar pertsonako. Azken hamarkadetan, gatazka armatuetan hildakoen kopuruak izugarri egin du gora, oso kaltegarriak diren eta, biztanleria zibilean, ondorio izugarriak sortzen dituzten armak erabiltzeagatik; esaterako, mina **antipertsonak**, zatitzen duten bonbak edo fusil automatikoak edo **semiautomatikoak**, minutu batean, 600 bala jaurtitzeko gai dena. Armen ugaltzeak eta hauek erraz eskuratu ahal izateak biolentzia kaleetara eraman dute, baita etxeetara ere. Afrikan, HIESAren ondoren, 15 eta 44 urte bitartekoen artean, heriotza gehien sortzen duen arrazoia da pertsonen arteko biolentzia. Gerra da hirugarrena. Hildakoen kopuruaz gain, hanka ebaki behar izaten zaien edo zauritzen diren pertsonen kopurua gehitu beharra dago. Hiltzen diren pertsonen hirukoitza dago egoera honetan. Biolentzia armatuaren beste ondorioetako batzuk dira desplazamenduak, bizitzeko baliabideen galera, osasun zerbitzua eta hezkuntza izateko oztopoak eta sexu indarkeriaren handitzea. Biolentzia armatuak min fisikoak, psikologikoak eta emozionalak sortzen dizkie milioika familiei: gizonak indarrez erreklutatzen dituzte, emakumeek zaharrak, umeak eta gaixoak bere gain hartu behar izaten dituzte eta, gainera, zenbait kasutan, sexu indarkeria pairatzen dute; umeak bahituak izaten dira eta jendea hiltzera behartzen dituzte. Ume neskak, aldiz, morroi sexual moduan erabiltzen dituzte. Munduan 300.000 ume soldadu'dagoela kalkulatu da.*

*Egoera honen aurrean, **Amnesty Internationala, Intermon Oxfam eta Arma Atinen aurkako Nazioarteko Ekintza Sarea (IANS)**, Armak kontrolpean nazioarteko proiektuan batera lanean ari gara. Kanpaina honek 160 lurralde baino gehiagotako erakunde eta pertsonen babesa du.*

*Xedea honako hau da: 2006rako, **Armen Merkatuari buruzko Nazioarteko Hitzarmenaren** bidez, armen merkatuko kontrol ezarekin amaitzea. Munduko gobernu guztiak dirá armen kontrolaren erantzule, hiritarrak babesteko euren mugen barne armak baitituzte eta hauek, gainera, esportatzen dituzte; hortaz, biztanleria zibilaren edo giza eskubideen aurkako gehiegikeriak egiten ez direla, bermatu behar dute. Munduko herrialde aberatsenak merkatu orokor honen kontrolaren erantzule nagusiak izan behar dute. Ezin dugu ahaztu, era berean, herrialde hauek direla armen hornitzaile nagusiak; honela, Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluko kide iraunkorrek -Estatu Batuak, Txina, Frantzia, Errusia eta Erresuma Batua- munduko arma konbentzionalen esportazioen %80 baino gehiago, bere gain dute; esportazio hauek giza eskubideak urratzen dituzte.*

Kanpainak eremu desberdinetan egin daitezkeen ekintza ugari proposatzen ditu, armen giza kostea gutxitzeko helburuarekin. Gaur egun arte, Hegoaldeko eta Iparraldeko gobernuak ez diote egoerari beharrezko zehaztasunez eta larrialdiz erantzun. Gai honetan aurrerapenak egin nahi badira:

- Mundu guztiko gobernuak biolentzia armatua gutxitu dadin borrokatu behar dute, egoera hau pairatzen duten lurraldeetan, biztanleria zibila babestuz eta armak biltzeko eta suntsitzeko programak bultzatuz.*

• Nazioarteko komunitateak gogorarazi behar du eta irizpideak nola baliabideak martxan jarri, nazioarteko armen merkatua kontrolatzeko, jada existitzen diren mekanismoak indartuz; esaterako, Europar Jarrera Kodigoa.

• Gobernuek, bestalde, euren armen transferentzien kontrola eta mekanismoen gardentasuna hobetuko dituzten legeak sortu behar dituzte, giza eskubideetan gehiegikeriak eman ez daitezzen eta Nazioarteko Giza Eskubideak urratu ez ditzaten.

Armak Kontrolpean kanpainak Armen Merkatuaren inguruko Nazioarteko Hitzarmena lortu nahi du; hitzarmen honen bidez, trafikatzailerak eta bitartekariak kontrolatuko dituen mekanismoak bultzatu nahi dirá, hirugarren herrialdeen bidez, armen transferentziak egin daitezzen saihestu eta armen konfiskazioa kontrolatu.

Esandako guztia aintzakotzat hartuz, Donostiako Amnistía Internazionalako Taldeak honako hau eskatzen du:

1. Zumaiako Udaleko Udaltzarak Armak Kontrolpean kanpainan sar dadin.

2. Espainiar Estatuko Gobernuak presionatu dezala honako hauek lortzeko:

a. Armen Merkatuaren lege baten onarpena; honek Europar Jarrera Kodigoarekin bat etorri behar du eta kontrol handiagoa eta esportazioen gardentasuna exijitu behar ditu.

b. Jarrera aktiboagoa bat, nazioarteko foroetan, ekimenak bultzatu eta proposatu ditzan.

Nazioarteko Armen Hitzarmena izan daiteke ekimen horren adibide bat. Ekimen hauen xedea izan behar da mundu mailako armen merkatuetan, kontrol handiagoa izatea, armen ugaritzeak dakarren giza kostea gutxitzeko helburuarekin.

Donostian, 2006ko apirilaren bian.

IZUSTARRI-k dio euskarazko alea desitxuratua banatu dela.

Alkate-lehendakariak mozioaren puntu garrantzitsuenen laburpen bat egiten du.

Ondoren, bozketa egiten da,

Eskubidezko zinegotzi kopurua: 13

Bilerara bertaratuak: 11 (5 EAJ, 2 IZUSTARRI, 2 EA, eta 2 PSOE)

Aldeko botoak: 11 (5 EAJ, 2 IZUSTARRI, 2 EA eta 2 PSOE).

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 0

ERABAKI DA:

EAJak aurkeztutako AMNESTY INTERNACIONAL TALDEko ARMAS BAJO CONTROL mozioa onartzea.

5.- INGURUMENA.-

5.1.- EUSKAL HERRIKO JASANGARRITASUNERAKO KONPROMISOA.

Alkateak hitzez hitz honela dioen testuaren laburpen bat egiten du:

EUSKAL HERRIKO JASANGARRITASUNERAKO KONPROMISOA

Ingurugiroa Babesteko Lege Orokorrak, Euskal Hérrirako eredu jasangarriarekiko konpromiso sendoa adierazten du, oraingo premiei erantzun eta etorkizuneko belaunaldiek beren premiei erantzuteko gaitasuna arriskutan izan ez dezaten.

Garapen-eredu berri hau bere ondorio guztiekin onartzeak, oraingo ereduan aldaketa sakona eragiten saiatzea esan nahi du. Produkzioan eta kontsumoan portaera berriak sartzea esan nahi du. Pertsona gisa eta gizarte gisa poluzioari eta baliabide-kontsumoari buruz, hondakin-produkzioari buruz, lurzoruak kaltetzeari buruz eta biodibertsitate-galerari buruz konpromisoa hartzea esan nahi du. Nolanahi ere, aldaketa hau ez bultzatzeak gure planetaren etorkizuna zalantzan jartzea eta etorkizunean bertan biziko direnen ongizatea hipotekatzea adierazten du.

Beraz, beharrezkoa da gure bizi-kalitatea jasangarritasunaren zimendu gainean eraikitzea, hau da, ongizate ekonomikoaren, gizarte-justiziaren eta ingurugiro garbi eta osasungarriaren gainean eraikitzea. Zutabe hauek, hirurek, bultzatu behar dugun garapen-ereduko ezinbesteko oinarria osatzen dute. Ingurugiroa babestea, baliabideak eraginkortasunez erabiltzea eta ekosistemen produkzio-ahalmena dira kontuan hartzeko oinarrizko baldintzak.

Hau guztia dela eta, agiri honek jasangarritasunean oinarritutako eredu berrira iristeko konpromiso sendoaren adierazpena izan nahi du. Euskal Autonomía Erkidegoan helburu horretarako adostutako estrategia, ondoko oinarriek definitzen dute:

- **Kode etikoa.** Globalizazioak, biztanleria-hazkundeak eta mundu guztian kontsumo-mailak igotzeak, baliabide-eskaria izugarri igoarazi dute. Industrializatutako herrialdeek garapen bidean diren herriekin eta hirugarren mundukoekin nazioarteko anaitasuna sustatzeko betebeharra dugu. Izan ere, gure gizarteak eta gurea bezalako gizarte garatuak sortutako ingurugiro-eraginen zati handi bat haiek jasaten dute. Joera-aurreikuspenak dioenez, oraingo ingurugiro-arazo asko larriagoak izan daitezke hurrengo hamarkadan, batez ere gaur egungo produkzio eta kontsumoko ereduaren eraginez. Beraz, nahitaezkoa da gure pentsaera, gure baloreak, gure bizimodua eta gure kontsumo-portaerak aldatzea. Belaunaldien arteko eta nazioarteko anaitasuna gure zereginaren oinarri da.

- **Gizartearen kohesioa eta partaidetza.** Gizarteko sektore guztiek dute zeregina jasangarritasunerako prozesuan. Ingurugiro-degradaziora bultzatzen ari da zenbait sektore-politika, eta horiek aldatzeko eragin behar diren egitura-berrikuntza garrantzitsuak sartzeak, komunikazio-sistemak hobetzea eta herritarrak mobilizatzea esan nahi du. Politikak prestatzen eta erabakiak hartzen

gizarteko eragile guztiek parte hartzeak, lagundu egingo du anaitasuneko eta ingurugiro-errespetuko baloreak geureganatzen.

- **Arreta-oinárrria.** *Ingurugiroaren kontra kalteak sortzeko mehatxuak daudenean, ekintzak bultzatu behar ditugu. Ziur ez egotea edo ezagutza zientifikorik ez izatea, babesteko edozein ekintza atzeratzeko edo eragozteko ez da nahikoa arrazoi jzango.*

- * **Ikuspegi integratua.** *Jasangarritasunerantz aurrera egitea ez da ingurugiro-politikak erabilia bakarrik lortuko, ingurugiro-portaerak dituzten politika sozioekonomiko sendotuen bidez baizik. Beraz, lehentasuna du ingurugiro-aldagaia sektore-politika guztietan txertatzeak, eta batez ere industrian, garraioan, energian, nekazaritzan eta kontsumoan txertatzeak.*

- **Ekoeraginkortasuna.** *Hurrengo hamarkadan Euskal Autonomia Erkidegoaren aukera nagusia honako han jzango da: giza baliabide gehiago erabilia eta baliabide natural gutxiago erabilia, ongízate-maila handiagoa lortzea. Hazkunde ekonomikoa baliabideak erabiltzetik eta poluziotik askatzea erabat funtsezkoa da garapen jasangarria lortzeko. Produktibitatea handiagotuta baliabide natural gutxiago erabiltzeko aldaketa egin daiteke eta egin behar da. Horrela ekonomiako sektore guztietan ingurugiro-eragina txikiagoa izango da produktu eta zerbitzuen bizialdi osoan zehar. Ekoeraginkortasuneko teknologi iraultza, bera bakarrik nahikoa ez bada ere, jasangarritasunerako beharrezko gaia da.*

- **Plangintza Estrategikoa.** *Euskal Herriko ingurugiro-helburuek, euskal gizarteak beretzat eta hurrengo belaunaldientzat onartzeko prest dagoen ingurugiro-kalitateaz egindako gogoeta-prozesuaren emaitza izan behar dute. Gara-pen-eredu berriak Ingurugiroko Esparru Programan islatu behar du.*

Garapen jasangarria, berehala eta tinko ekitea eskatzen duen estrategia jarraitu gisa hartu behar da. Jasangarritasunerantz aurrera egiteak ingurugiro, gizarte, ekonomia eta kulturako etekinak jaso eta besteentzat uztea esan nahi du.

Euskal Herriko jasangarritasunaren alde.

Bilbon, 2001eko urtarrilaren 22an

EAJko ingurugiroko zinegotzi arduradunak dio Euskal Herriko Jasangarritasunerako konpromiso agiria, Agenda 21en barneratu behar dela. Prozesuaren hasieran Alborgeko Ituna dago, ondoren, diagnostikoa egin zen , jarraian ekintza-planak eta une honetan Euskal Herriko Jasangarritasunerako Konpromisora atxikitzea dagokigu.

IZUSTARRIren iritzian kontraesanetan erortzea da Eusko Jaurlaritzaren jarrera. Batetik, azpiegitura erraldoiak sustatu (superportua, y-grekoa ...) jasangarritasunik ez duten proiektuak, eta, bestetik, jasangarritasunerako konpromisora atxikitzea eskatu.

Ondoren bozketa egiten da,

Eskubidezko zinegotzi kopurua: 13

Bilerara bertaratuak: 11 (5 EAJ, 2 IZUSTARRI, 2 EA, eta 2 PSOE)

Aldeko botoak: 11 (5 EAJ, 2 IZUSTARRI, 2 EA eta 2 PSOE).

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 0

ERABAKI DA:

Euskal Herriko Jasangarritasunerako Konpromisoarekiko atxikipena onartzea.

6.- PERTSONALA.-

6.1.- UDALHITZ.

Zera adierazten da presazkotasun arrazoiak bide, ezin izan dela gai ordena prestatu aurretik Udalhitzaren onarpena Pertsonal Batzordean diktaminatua izan. Beraz, udalbatza osoari eskatzen zaio ratifikatu dezala gai ordenean Udalhitz sartzearen bidez kotasuna.

Alkate andreak barne araudiko 82,3. artikulua ematen dion ahalmenaz baliatuz, gainerendean Udalhitz gai ordenean sartzea proposatzen du, presazkoa dela aintzat hartuta, bilkuran eztabaida dadin.

Gai hori eztabaidatzearen presazko izaera ratifikatzea bozkatzeko da, eta, jarraian, udalbatzara bertaratu diren zinegotzietatik, legeak eskatutako gehiengoa betetz, proposatutako gaiaren presazko izaera eta gai hori eztabaidatzearen bidez kotasuna deklaratu dute.

Hazienda Batzordeko lehendakariak zera adierazten du, 1980tik gaurdaino UEFALEBA gisa ezagutu den akordiora atxiki izan direla Autonomia Erkidegoko udalak. Betidanik izan du Udala eta Foru Aldundiko langilearen lan-baldintzak jasotzen zituen akordioak legezkotasun ezaren zantzuak. Zentzu honetan, zenbait alkateren jardura judizializatua izateraino iritsi ginen.

Egoera honi irtenbide bat ematearren, orain arte ezagutu dugun akordioa eraldatu egin da eta UDALHITZ izeneko akordio berria jaio da.

Negoiazio luze eta zabalen ondoren, Autonomia Erkidegoko udalen ordezkartzan, EUDELEk eta ELA, CCOO eta UGT sindikatuak sinatu dute Euskadiko Tokiko Erakundearen Lan Harremanetarako Protokolo Markoa.

Azken unera arte negoziatio-mahaian egon den LABek ez du sinatu, eta azken unean mahaira bildu den ELAk, aldiz, sinatu egin du.

Prozedurari jarraituz, Zumaiako Udalean negoziatio-mahaia eratu da. Horretarako, sindikatu guztiei deitu zaie. UGT ez da bilerara azaldu, eta LAB bilerara azaldu arren ez du sinatu. Beraz, Zumaiako Udalean UDALHITZ sinatu dutenak Udala eta ELA eta CCOO izan dira. Aktaren testua irakurtzen du.

PSOEek adostasuna azaltzen du UDALHITZ onartzeari buruz. Izan ere, lehendik zegoen hitzarmenari indar juridikoa ematen dio, eta, zentzu honetan, erakundeari eta bereziki udal langileria guztiarentzat hobekuntza da. Beraz gure iritzia positiboa den neurrian botoa

aldekoa da. Lastima da azken unean sindikatu batek ez sinatu izana, eta bide batez kanpoan gelditzea.

IZUSTARRIK ezekoa bozkatuko duela adierazten du. Batetik, gaia batzordean atzo aztertu zelako eta gai ordenean sartzeko nahiko aurrerapenik ez delako izan, eta, bestetik, LAB sindikatuak ez duelako izenpetu.

ELAK hitzarmena udalez udal negoziatu behar zela adierazi eta mantendu du behin eta berriz, eta, ondoren, berak jakingo du zergatik egin duen, baina EUDELEK negoziaturiko testua sinatu du.

EAREN iritzian, gaia aurrerapen gehiagorekin aztertu behar zen. Eta UDALHITZ akordioa onargarriagoa izango litzateke Zumaian bederen, sindikatu gehiagok sinatuko balute.

Pertsonal eta Hazienda Batzorde buruak asko kostatutako negoziaketen emaitza izan dela dio, eta beti bezala azken unean lortutakoa. Sindikatuen jokoan ez naiz sartzen. Gaurko helburua hitzarmena onartu eta lehenbailehen aplikatzea da, langileriaren faboretan. Formalismo bat besterik ez da.

PSOEK dio UDALHITZEN jatorria ez dagoela Zumaiako Udalean. Zumaian gertatutakoa, udal mailan izan dezakeen garrantziarekin salbu, anekdota bat besterik ez da, beraz plenoari dagokiona onartu edo ez besterik ez da.

Ondoren bozketa egiten da,

Eskubidezko zinegotzi kopurua: 13

Bilerara bertaratuak: 11 (5 EAJ, 2 IZUSTARRI, 2 EA eta 2 PSOE)

Aldeko botoak: 9 (5 EAJ, 2 EA eta 2 PSOE)

Aurkako botoak: 2 (IZUSTARRI)

ERABAKI DA:

Zumaiako Udaleko funtzionarioen lan-baldintzak arautzen dituen hitzarmena eta Zumaiako Udaleko lan-kontratadun langileen lan-baldintzen hitzarmen kolektiboa onartzea, Euskadiko Toki Erakundeetako Lan Harremanetarako Protokolo Markoarekin batera.

7.- KIROLAK.-

7.1.- ESKOLA-KIROLAREN MANIFESTUARI ATXIKITZEA.-

Kiroletako Batzordeko lehendakariak Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte eta Erakunde Harremanetarako Departamentuak Gipuzkoan ezartzen den eskola-kirolaren ereduari buruz egindako adierazpen instituzionalarekin bat egitea proposatzen du.

Ondoren bozketa egiten da,

Eskubidezko zinegotzi kopurua: 13

Bilerara bertaratuak: 11 (5 EAJ, 2 IZUSTARRI, 2 EA eta 2 PSOE)

Aldeko botoak: 11 (5 EAJ, 2 IZUSTARRI, 2 EA eta 2 PSOE)

Aurkako botoak: 0

ERABAKI DA:

1.- **Eskola Kirolaren manifestuari atxikitzea**, hiru lurraldeetako ikastetxeetako umeek, Donostian 2004ko abenduaren 11 eta 12an egindako Euskadiko Eskola Kirolari buruzko I. Kongresuan egin eta onartu zuten manifestuari.

2.- Ondoko konpromiso hauek hartzea:

- Onartzea Eskola Kirola Gipuzkoako lurralde historikoko kirol sistemaren oinarri dela eta, ondorioz, beharrezko bitarteko guztiak jarri behar direla eskola-kirolaren antolaketa Euskal Herriko Kirolaren 14/1998 Legea garatetik eta 2003-2007 aldiko Kirolaren Euskal Planean ezarritakotik atera den arautegi esparru berriari egokitzeko.
- Udal honen eskumenen barruan, Gipuzkoako Eskola Kirolaren eredia erabat zabaltzen laguntzea, Gipuzkoako Eskola Kiroleko Jardueren Urteko Programa onartuz, plan horren edukiak bat baitatoz legerian dauden printzipioekin. .
- Bultzatzea Eskola Kirolean ari diren agente guztiak lurraldeko eskoletako ume guztien beharretara egoki daitezela salbuespenik gabe, halako moduz ezen partida eta lehiaketetako arautegietan eta detektatu, teknifikatu eta entrenatzeko metodo eta planetan eskoletako umeen kondizio fisikoa eta heziketa beharrak errespetatu daitezzen, Ume eta Gazteen Atentzio eta Babesari buruz otsailaren 18an emandako 3/2005 Legean agindutakoa betez.
- Kirolak bere adierazpide guztietan dituen balio positiboak hedatzea, batez ere arrazismoaren eta portaera bortitzen kontrakoak direnean.
- Zumaiako Udaleko erakunde publiko eta pribatuei, herritarrei, oro har, eta, batez ere eskoletako umeen gurasoei adierazpen honi atxikipena emateko gonbita egitea.

8.- ZERBITZUAK.-

8.1.- ITZURUNGO HONDARTZA KUDEATZEKO KONTRATUA ALDATZEA.-

Batzordean onartutako diktamena irakurtzen da.

ITZURUNGO HONDARTZA USTIATZEKO KONTRATUA SANTIAGOKO HONDARTZAREN USTIAPENAREKIN ZABALTZEKO PROPOSAMENA.

AURREKARIAK

.- ITZURUNGO KONTRATUA: Zumaiako Udalak kontratua izenpetua du VANESA ARBELAITZ YEREGUI eta beste batzuk ondasun-erkidegoarekin, ITZURUNGO hondartzako taberna-kafetegia, komunak, kabinak eta dutxak kudeatzeko eta eguzki-oihalak, aulkiak eta etzaulkiak erabiltzeko.

Luzapenak ere batuta, kontratuak 2009ra arte iraungo du, urte hori barne.

.- SANTIAGOKO KONTRATUA: Zumaiako Udalak kontratua izenpetua du VANESA ARBELAITZ YEREGUI eta beste batzuk ondasun-erkidegoarekin, Santiagoko hondartzako kantinearen eta komunen zerbitzua kudeatzeko.

Luzapenak ere batuta, kontratuak 2006ra arte iraungo du, urte hori barne.

.- SANTIAGOKO HONDARTZAREN HIRIGINTZA-EGOERA:

Santiagoko hondartza antolamendu-prozesu batean (Santixoko barne-erreformako plan berezian) sartuta dago. Prozesu hori oraindik onartzeko du Gipuzkoako Foru Aldundiak eta antolamendu-planaren exekuzio-proiektua egitea falta zaio. (Madriletak diru-laguntza jasotzeko aukera dago).

Antolamenduaren bitartez lortu nahi diren irizpide eta helburu orokorrak honako hauek dira, besteak beste:

.- Naturako esku-hartzeetan, babes bereziko guneak ezartzea, portuko bokalean dikea eta bigarren dikea luzatuta hondartzak eta dunak definitutako ekosistemak izan duten bilakaera kontuan hartuta.

.- Santiagoko eta Orruako hondartzetara iristeko moduak bermatzea eta hobetzea.

.- Aparkalekuak jartzeko aukera kentzea 2. sistema orokorreko eremutik (hondartza-dunatik). Beste eremu batzuetan konpontzea arazo hori, 3. sistema orokorrean eta portuaren eremuan.

.- Santiagoko hondartza zorrotz babestea. Eraikuntzak galaraztea, hondartzako zerbitzuen eta instalazioen eraikuntza izan ezik.

Beraz, proiektua gauzatu arte Santiagoko hondartzak ez ditu izango zerbitzu egokia emateko beharrezko zerbitzuak. Hondartzaren erabiltzaileek, berriz, gutxieneko batzuk eskatzen dituzte, eta Udalak eskaera horiek bermatzeko asmoa du; besteak beste, komunak eta kantina.

Hondartza birmoldatzeko lanek denbora asko iraun dezaketela ikusita, eta hondartzaren oinarritzko beharrei erantzuteko, kontratazio-organoak (osoko bilkurak), proiektua gauzatu bitartean, ekainaren 16ko 2/2000 Legegintzako Errege Dekretuko 59. artikulua onartutako Herri Administrazioetako Kontratuen Legeko testu bateginean xedatutakoaren arabera eta bozketa eginik,

Eskubidezko zinegotzi kopurua: 13

Bilerara bertaratuak: 11 (5 EAJ, 2 IZUSTARRI, 2 EA eta 2 PSOE)

Aldeko botoak: 11 (5 EAJ, 2 IZUSTARRI, 2 EA eta 2 PSOE)

Aurkako botoak: 0

ERABAKI DA:

1.- Itzurungo hondartzaren kontratuaren xedea aldatzea, eta Santiagoko hondartzaren xedera ere zabaltzea.

Zabaltzeko baldintzak:

.- VANESA ARBELAITZ YEREGUI eta beste batzuk ondasun-erkidegoak Zumaiako Santiagoko hondartzaren taberna eta komunak kudeatzeko konpromisoa hartzen du, honako baldintza hauen arabera:

- Kanonaren salbuespena: horren ordainetan, Santiagoko hondartzako komunak garbitasun- eta higiene-egoera onean edukitzeko konpromisoa hartu dute.
- Kontratuaren iraupena: kontratu nagusi aldatuaren iraupenera lotuta geratzen da (2009ko denboraldia, denboraldi hori barne). Santiagoko hondartzako lanek irauten duten denborara ere lotuta dago.

2.- Alkateari ahalmena ematen zaio akordio hau bete beharrekoa izan dadin.

9.- ESKARI – GALDERAK.-

Alkate-lehendakariak korporaziokideren batek eskakizunik edo galderarik egin nahi duen galdetu du.

EAKo bozeramaileak plenoak grabatzeko proposamena egiten du.

EAJk erantzuten dio udaletxe berriari begira aztertuko direla baliabide tekniko modernoek zein aukera ematen duten horretarako. Multimedia sistemak...

IZUSTARRIk adierazten du gaurko egunez, maiatzaren 25ean, sortu zela apartheid politikoa, Zumaian, Autonomia Erkidegoan eta Nafarroan.

EAJk dio zorionez Zumaiako Udalean ez dagoela horrelakorik, eta poztu egiten direla.

IZUSTARRIk erantzuten du Udalean ezetz, baina bai Diputazio eta Eusko Jaurlaritzan. Eta, ondoren, Gara egunkarian gaiari buruz argitaratu den artikulua bat irakurtzen du.

IZUSTARRIk galdetzen du nola litekeen plenoko gai ordenean bezperan Batzorde Berriemailean aztertutako gaiak sartzea. Toki Korporazioetako Eraentza Juridikoa, Funtzionamendua eta Antolaketa Araudiko 82. Atalak gai ordenean barneratzen diren gaiak aurrez batzorde berriemailean diktaminatuak izan daitezela eskatzen duenean. Araudiko artikulua irakurtzen du. Beraz akordio horiek deuseztat jotzea eskatzen du.

Zera erantzuten zaio, alderdien eskaera kontuan izanda plenoko gai ordenak legeak ezartzen duena baino aurrerapen gehiagoz igortzen direla korporaziokideek denbora izan dezaten gaiak aztertzeko. Gai bakar bat izan da Batzordean pleno bezperan aztertu dena, eta kasu horretan presazkotasuna aitortu zaio. Kreditu-aldaketa bada bi aste aurkeztu zela Hazienda Batzordean eta plenora onarpena hori ekarri da PSOEk egindako proposamena gehituz. Beste bi gaiak hirigintzakoak lirateke.

Idazkariak adierazten du udalbatza osoaren akordioak baliozkotasun printzipioak babesten dituela eta deusezak direla epaiak aitortzen dituenen, ez lehenago.

Alkate-lehendakariak akordioek deuseztasun zantzurik izan ez dezaten, ahalik eta lasterren beste pleno bat deitzea proposatzen du, akordio hauei baliozkotasun guztia aitortzeko.

Alderdi politikoen artean eztabaida sortzen da, forma arazoei buruz, joko politikoak..

IZUSTARRIk dio atzera egiten duela egindako adierazpenetan, baina aurrekontuak eztabaidatu behar ziren plenoan alkateak erretiratu zituela ikustean beraiek izan zuten sentsazio, trikimailua egon zela izan zen.

Alderdien arteko eztabaidak jarraitzen du.

Alkateak amaitzeko dio Orfeoiaren kontzertura zein doan adierazteko.

Beste gairik izan gabe, gaueko hamaikak eta hamabost minutu direnean, alkate andreak batzarraldia amaitutzat eman du, eta nik, idazkaria naizen aldetik, fede eman dut.

ALKATEA

IDAZKARIA